

Aitor Hernández, txirrindularia:

“Gorengo mailan jarraitzeko, babesleak lortzea ezinbestekoa da”

Ziklo-kros denboraldi bikaina burutu ostean, atsedenerako tarte hartu du 30 urte dituen Aitor Hernandez txirrindulari ermuarrak. Errepidean maila profesionalen aritu zen eta 2010eko udazkenean berriz ere ziklo krosera itzuli zen. 2011 urte oparoa izan da oso. 6 garaipen lortu ditu, Bizkaiko Txapelketa eta Euskadiko Challengea tartean eta Munduko Txapelketan ere parte hartzeko aukera izan du.

- Zer moduz joan da denboraldia?

2010ekoa berriz ere ziklo-kroseko zirkuitura hurbiltzeko urtea izan zen. 2011n, ostera, martxoan hasi eta oso prestakuntza gogorra eta berezia egin dut. Euskadiko ziklo-kros zirkuitua egiteaz gain, Espainiakoan ere aritu naiz. Nere burua ere probatu nahi nuen eta egia esan, oso pozik nago burutu dudana denboraldiarekin.

- Nola banatu duzu urtea?

Aurten bezala, urtarrilean denboraldia amaitu ostean, otsaila atsedena hartzeko baliatu nuen. Ondoren, martxoan, prestakuntzarekin hasi nintzen. Mountain-bike zirkuituan 10 lasterketetan parte hartu nuen eta 2 garaipen erdietsi nituen. Euskal Herriko Txapelketan bigarren geratu nintzen. Gero, abuztu-irailan, afizionatu mailako errepideko 7 lasterketa korritu nituen prestakuntza gisa, federakuntzaren baime-narekin. Udazkenean, ziklo-kros denboraldiarekin hasi eta urtarrilera arte hortxe aritu naiz.

- Espainiako eta Munduko ziklo-kros txapelketetan ere izan zinen...

Espainiako txapelketa Valentzian izan zen. Hasi eta berehala, lehen itzulian gupila zulatu zitzaidan eta horrez gain, bizikletak aldatzeko box-ean akats bat egin eta asko atzeratu nintzen. Kolpe gogorra izan zen, baina hura ere pasa zen. Munduko txapelketa Kokjside-n izan zen. Ez nuen oso emaitza ona lortu. Ibilbidea ere ez zen egokia guretzat. Hareatsua zen ibilbide gehiena eta ez zegoen bizikleta gainean ibiltzerik.

- Lagunek hurbiletik jarraitu dituzte zure lasterketak...

Bihotzez eskertzen diet eman didaten babesak. Gorai-patu nahiko nituzke urte osoan mekaniko lanak egiten alboan izan ditudanak: Txurruka eta nirekin batera lasterketetan parte hartzerak animatu diren Zigor eta Iker. Lasterketetan parte hartzeaz gain, babestu eta lagundu didatelako.

- Ermuko beste gazte batzuk ere fin datoz...



Aitor Hernández, bigarrena ezkerretik hasita

Aitor Galdos da une honetan profesional mailan daukagun txirrindulari bakarra. Horrez gain, aipatu nahi nituzke Peio eta Xabi Goikoe-txea anaiak eta Aitor Gonzalez ere. Xabik ziklo-kros denboraldi osoa burutu du eta 3 garaipen erdietsi ditu. Peio eta Aitorrek ere garaipen batzuk lortu dituzte, lan polita egingo dute etorkizunean. Argi gazte hauekin!

- Orbearen laguntza izan duzu...

Behar izan dudana material guztia jarri didate eskura eta benetan eskertzen diet emandako babesak. Horrez gain, bidaiak eta aparteko gastuetarako baditut beste

babesle txiki batzuk baina gorengo mailan segitu nahi bada, babesleak lortzea ezinbestekoa da. Momentu honetan ez daukat halakorik. Horretan ari naiz lanean.

- Aurrera begira orduan zein asmo duzu?

Esku artean proiektu bat daukagu eta ea gauzatzen den. Babesleak lortzea ezinbestekoa da behar den bezala lana egiteko. Aurten ere 21.000 kilometro egin ditut, profesional urtea bailitzan. Halako dedikazioak, bestelako babesak eskatzen du. Martxoan hasi beharra daukat denboraldia prestatzen. Ea etorkizunak zer dakarren!

Asier Ibaibarriaga



“Adituak gara ondo elikatzen irakasten”

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta
Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behe
943 17 63 72



Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com